

URTEKO KUDEAKETA PLANA

2022-2023

UDARREGI IKASTOLAREN XEDEA, IKUSMIRA ETA BALIOAK PLAN ESTRATEGIKOAREN BAITAN

Udarregi Ikastolak aspaldidanik definituta ditu bere xedea, ikusmira eta balioak. Xedea ikastolaren izatearen arrazoia da eta honako galderari erantzuten dio:

- Nor gara?
- Zein da gure izatearen arrazoia?
- Norentzat dihardugu?

Ikusmirak, berriz, epe ertainera izan nahi dugun organizazio mota eta honen jomuga deskribatzen ditu.

Azkenik, balioek edo printzipioek organizazioaren oinarrian dagoen filosofia eta hautu pedagogikoa islatzen dute eta xedearen eta ikusmiraren euskarriak dira.

XEDEA EDO MISIOA

Udarregi ikastola, Usurbilgo 0-16 urte bitarteko ikasleriari hezkuntza akademiko nahiz giza- baloreetan ardaztutako formazio sendoa eskaintzen dion Irakaskuntza Elkarte da. Euskararen sustapenarekin eta euskal kulturaren garapenarekin konprometitua dago eta bertako langileria kompetentean nahiz interes-taldeen partaidetzan oinarrituta dagoen.



IKUSMIRA

Usurbilen eta gure hezkuntza komunitatean prestigioa bermatua duen ikastola izan nahi dugu, erreferente bat izanik honako ezaugarri hauengatik:

- Ikasleriaren heziketa integrala, hezkuntza oinarrizko kompetentziak ardatz bilakatuz
- Langileria kompetentea
- Koordinazio pedagogikoa, elkarlana eta etengabeko formazioa
- Euskararen eta euskal kultur ondarearen transmisioan konprometitua
- Interes- taldeen partaidetza eta herriko erakundeekin elkarlana
- Zerbitzuen egokitasuna
- Kalitatezko kudeaketa

BALIOAK EDO PRINTZPIOAK

- Euskalduna
- Berritzailea
- Elkarlanean oinarritua
- Etengabeko formazioaren sustatzailea
- Erantzukizunezko partaidetzaren bultzatzailea
- Interes-taldeekiko komunikazio eta harreman ona, estua, konfiantzazkoa
- Partikular tasunetik unibertsalerako bidean, kultur ezberdinen integratzailea, giza- bazterketaren aurkakoa eta solidarioa
- Etengabeko hobekuntza printzipioetan oinarritutako kudeaketa sistema
- Naturaren eta ingurunearen zaintzan, babesean, eta garapen orekatuan inplikaturako erakundea



Ikaslearen profila

A: HEZKUNTZA INTEGRALA ESKAINTZEA				
	HELBURU ESTRATEGIKOAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	NEURGAILUAK
A 1	1. Gaur egungo korrante pedagogikoetan oinarrituta, oraingo praktikaren hausnarketa eta egokitzapena burutzea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasturteko Formazio Plana burutu eta gauzatu: Irailean proposamena alderatu ikasketa buruekin eta beharrezko doitzeak egin. 2. Hezkuntzak bideratutako digitalizazio formazioa irakasle guztiek egin behar dute. 3. Maila, ziklo eta etapen arteko koordinaketa hobetzen jarraitu: <ol style="list-style-type: none"> 3.1. Lan-taldeetako antolaketa baliatu funtzionamendu pedagogikoa egokitzeko, eta etapetara praktika pedagogiko onak hedatzeko: <ol style="list-style-type: none"> 3.1.1. Ikasturte hasieran lantalde bakoitzak urteko helburuak adostu. 3.1.2. Lantalde bakoitzeko praktika onak eta informazio interesgarriak etapan partekatu. 3.1.3. Hiru hilabete bakoitzeko klaustroa erabili Hobekuntza Pedagogiko Iraunkorreko formazio saietan egindakoa hedatzeko. 3.2. Konpetenzietan Oinarritutako Curriculumaren garapenerako metodologia kooperatiboan sakondu aurreko ikasturteetan egindako lanari segida emanez <ol style="list-style-type: none"> 3.2.1. “Konfiantzaren Pedagogia” etapa guztietara hedatu. 3.2.2. “Ikasten Kooperatu/Kooperatzen Ikasi” (etapa guztietan) 3.2.3. “GORPUTZALDIAK” (Adimen emozionala LH-n) 3.2.4. “BLOK-TAC” (LH) (Lan- Proiektuen metodologiarako tresna) 3.2.5. “KIVA” (LH eta DBH) (Eskola Jazarpena) 3.2.6. “EKI” proiektuaren jarraipena (DBH osoan eta LH bigarren zikloan). 3.2.7. “ Baso Eskola” proiektua martxan jarri HH3tik LH 3. mailara arte. 	Zuzendaria IKT ZT AP Irakasleak	Formazio plana. Digitalizazio ziurtagiria. Klaustroak. Proiektuen jarraipena. Koordi planning.

		<p>3.2.6. Proiektuak (diziplinarrak eta diziplina artekoak).</p> <p>3.3. Ikasketa buruek HH, LH eta DBHko koordinazio pedagogikoa lantzeko plangintza (KoordiPlanning).</p>		
A 2	<p>2. Etengabeko formazioa sustatzea</p>	<p>1. Urteko Formazio Plana idatzi eta aurrera eraman:</p> <p>1.1. HE/HH/LH/DBHko irakasleek IKASTOLEN ELKARTEKO eta BERRITZEGUNEN mintegietan parte hartzeak bideratu (<i>ikus Formazio Plana 2022-2023</i>).</p> <p>1.2. Hezkuntzako beste erakundeekin harremanetan egon formazio saioen antolaketarako (ERKIDE, BERRITZEGUNE, Mondragon Unibertsitatea, HIK HASI, EHU, GARATU, ...)</p> <p>1.3. Formaziora joaten diren irakasleen kopurua aldi oro egokitu beren etapetako errealitatean agertzen diren formazio-premietara (Ikastolako Hezkuntza Proiektuarekiko koherentzian).</p> <p>1.4. Bakarkako formazioetan jasotzen dena etapetan elkar banatu, elkarrekin ikasteko aukera zabalduz.</p> <p>1.5. Irakurketa Planean jasotako jarraibideak eta jarduerak, aplikatu:</p> <p>1.6. Etapetako helburuen eta jardueren antolaketarako nahiz ebaluaziorako erabili (<i>ikus Irakurketa Plana</i>).</p> <p>1.7. Ikasturte amaieran urteko formazioen balorazioak eta hurrengo ikasturteari begirako beharrak jaso.</p> <p>1.8. Administrazioako langileriaren izen-ematea eta parte hartzea EHI-ko mintegian eta beren interesetako formazio saioetan bideratu (ERKIDE...).</p> <p>1.9. Zerbitzuetako langileek, beren arloko formazioa jaso.</p>	<p>Zuzendaria. AP. Irakasleak. Administrazioa. Zerbitzuetako langileak.</p>	<p>UKP (Urteko kudeaketa plana). Formazioak. Irakurketa Plana.</p>
A 3	<p>3. Langileriaren kompetentzia talde lanean areagotzea eta ditugun erronka pedagogikoei egokitzea</p>	<p>1. Langileriaren kompetentzia areagotu ekintzaile-tasunean:</p> <p>1.1. Hezkuntza Proiektuaren ardatzak uztartu ikastolako proiektu kurrikularretan:</p> <p>1.2. Mintegietan egindako lana etapetan sozializatu.</p> <p>1.3. Pixkanaka, erronka pedagogiko berriak praktikan jarri.</p> <p>1.4. Erronka pedagogiko berri hauek, Arduradun Pedagogikoen gidaritza eta koordinaziopean gauzatuko dira.</p> <p>1.5. Lan ildoak ahal den neurrian bateratu.</p>	<p>Zuzendaria. ZT. AP.</p>	<p>Mintegietan parte hartzea.</p>

<p>A 4</p>	<p>4. Beste interes taldeekin (irakasle, guraso, ikasle) harreman onak, estuak, eta konfiantzazkoak garatzea</p>	<p>1.Bileretako prozesuaren kontrolarekin eta hobekuntzen ezarpenarekin jarraitu: 1.1. Bileren antolaketa. 1.2. KT taldea hilabetean behin bildu zuzendariarekin eta koordinatzaileen arteko bilera beharrezkoa denean. 1.2.1. ZT taldea (bi astetik behin). 1.2.2. AP Taldea hamabostean behin. 1.2.3.Bilera akta jaso dagokion erregistroan (txantiloia bete erraza) 2.Etapa guztietan auzo-laneko ekintzak sustatzen jarraitu (maiztasuna handitu eta etapetan hedatu) eta sistematizazioarekin jarraitu hasitako bidetik, adin guztietan landuz eta ohiko programazioetan txertatuz: 3.HHko “Hamaiketako osasuntsuak” antolatzen jarraitu eta LH 1. zikloko hamaiketako antolaketa berrikusi, bi etapen arteko erabakiak koordinatuz. 3.1.Etapa guztietan proiektu solidarioak sustatu. 3.2.Goazen Kalera (DBH3) ekimenarekin jarraitzeko aukera aztertu.</p>	<p>Zuzendaria. KT. AP. ZT. AK.</p>	<p>Aktak. Auzolanean parte-hartu. Goazen kalera ekimenean parte hartu. Proiektu solidarioak.</p>
		<p>HAUR HEZKUNTZA</p>		
		<p>1.HH 0-6 proiektuaren garapena zaindu eta garatzen lagundu: 1.1. Curriculum landu; gai eta jardueren aukeraketa egokia egiteko. 1.2. Baso Eskolaren projektua sendotu. 1.3. Irakasleek formazio saioetan parte hartu.</p>	<p>Ikasketa burua: 0-3 eta 3-6ko hezitzaileak eta irakasleak</p>	<p>Hausnarketen ondorioak eta hartutako erabakiak Formazioetako ziurtagiriak</p>

		<p>2.Haur Hezkuntzako 1. (0-3) zikloaren eta 2. zikloaren (3-6) arteko koordinazioan sakontzen jarraitu:</p> <p>2.1. Ikasketa Buruaren gidaritza pean, 0-6 etapetako kideen artean jarraibideak eta estrategiak partekatu, landu eta aplikatu.</p> <p>2.2. HH eta LH 1. ziklokoen arteko koordinazio bilerak burutu Marko Pedagogikoari LHn segida emateko eta bide batez trantsizioaren jarraipena egiteko.</p>	<p>Ikasketaburua 0-6 etapako hezitzaileak eta irakasleak 0-6ko Koordinatzaileak</p>	<p>Hausnarketen ondorioak eta hartutako erabakiak.</p>
<p>LEHEN HEZKUNTZA (6-12)</p>				
		<p>1.Proiektu kurrikularrak berritzeko EHI_KO ikasmaterialak erabili:</p> <p>1.1. EKI proiektuaren hedapenarekin jarraitu:</p> <p>1.1.1. LH-n EKI deribaziorako sortutako Unitate Didaktikoak erabili LH4etik LH6era bitarteko mailetako irakasleek eta ikasmaterialen erabilerarako formazio mintegietan parte hartu.</p> <p>1.1.2. LH1. KIMU proiektua erabili hizkuntza lantzeko eta bereziki idazketa lantzeko euskarria.</p> <p>1.1.3. LH 1-2-3n matematika manipulatioa (Innovamat) txertatzen jarraitu, lantaldean kontzeptualizazio berria landuz, ikuspegi berria barneratzeko.</p> <p>1.1.4. Proiektuen lanketa egin.</p> <p>1.1.5. Baso eskolako jarraipena; Curriculum bertan uztartu. Bestalde, lurjabeekin hitzarmena sinatu.</p> <p>1.1.6. Ebaluazio hezigarria egiteko, gogoeta koaderno sortu; bertan, arlo bakoitzaren irizpideak zehaztuta egongo dira eta atzean ebidentziak jarriko dituzte irakasleak.</p> <p>1.1.7. Konfidantzaren pedagogia bigarren ziklora hedatu; curriculum eta konfidantzaren pedagogiaren uztarketa bideratu (Konfidantzaren Pedagogian prestakuntza LH2.zikloko profesionalak).</p> <p>1.1.8. Irakasleek formazio saioetan parte hartu</p>	<p>Ikasketa Burua Arloetako irakasleak</p>	<p>Formazioetako ziurtagiriak. Hausnarketen ondorioak eta hartutako erabakiak. Gogoeta koaderno. Proiektuak.</p>

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (12-16)		
	<p>1. Proiektu kurrikularrak berritzeko EHI eta beharrezko beste ikasmaterialak erabili.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Mintegietan (Zientziak, Hizkuntzak eta Arteak), arloetako beharrezko hausnarketak eta aldaketak egin. 1.2. Curriculum berria aztertu. 1.3. Konfidantzaren pedagogiaren ikuspegia eta ildoak ezagutu eta aplikatu (Prestakuntza konfidantzaren Pedagogian). 1.4. Curriculum berria eta konfidantzaren pedagogiaren arteko uztarketaren inguruko azterketa egin aurrerantzean nola bideratu zehazteko. 1.5. Proiektuka lanean aurrerapausoak egin. 1.6. Arloak Eredu Konpetentzian lantzen” ikasteko mintegian parte hartu: Plastika, Teknologia, Gorputz Hezkuntza eta Musika. 1.7. Irakasleek formazio saioetan parte hartu. 1.8. Hautazko gaien berrantolaketa jarraipena egin. 	<p>Ikasketa Burua Arloetako irakasleak</p> <p>Formazioetako ziurtagiriak. Hausnarketen ondorioak eta hartutako erabakiak. Proiektuak.</p>

B: EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN GARAPENEAN EREDU IZATEA				
	HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
B 1	1. Ikasle euskaldun eleanitzak hezi	<ol style="list-style-type: none"> 1. HIZPRO garatu eta ebaluatu: <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Hizkuntza Urteko Planaren jarduerak burutu (Ikus 2022 Hizkuntzen Urteko Planaren txostena). 1.2. Ikasturte amaieran Memoria idatzi. 2. Murgiltze sistemaren inguruko hausnarketa egin eta hau ahalbidetzeko modua aztertu. 3. Euskararen erabilera familietan suspertzeko indarrean dugun ekintza-planaren jarduera proposamenen jarraipena egin: <ol style="list-style-type: none"> 3.1. Euskararen Erabileraz familietan jasotako datuak kontuan hartuta hizkuntzaren erabilera-irizpideak aplikatu eta hauen betetze maila lantaldean kontrolatu eta etapetan komunikatu. 3.2. Matrikulazio kanpainan datu berriak eskuratu. 4. Euskaraz Bizi Egitasmoaren jarduerak burutu (<i>ikus Urteko Plana</i>): <ol style="list-style-type: none"> 4.1. Ikasleekin euskararen erabilera sustatzeko jarduerak egokitu etapa eta adin bakoitzeko behararen arabera eta aukeratutakoak landu. 4.2. Eskolaz kanpoko eragileekin elkarlana burutu: aisialdiko taldeak, ZIRIMARA, Euskaltegiarekin, Udalarekin eta zerbitzuetako hornitzaileekin (AIBAK, UZTURRE) 4.3. Euskaraz Bizi taldea sortu. 5. Euskararen eta euskal kulturaren inguruko mugimendu sozialetatik datozen egitasmo interesgarriak hedatu eta parte hartzea bultzatu: <ol style="list-style-type: none"> 5.1. Hizkuntzen Urteko Planaren baitan EUSKARALDIA egitasmoa txertatu eta landu herriko beste erakunde eta eragileekin elkarlanean: KANPO ARIGUNEAK eratu idazkaritzetan (Haur Eskola eta Udarregi gorrian) 5.2. UEMAKo azterlanean (hizkuntza-ohituren aldaketa eta honen eragina euskarari) parte hartu. 5.3. 6. Eleaniztasunaren planteamendua etapen artean koordinatu bileretako egutegia ikasturte hasieran osatuz. 7. Ikastetxeen arteko trukatzeko antolatutako hizkuntzen ikaste-prozesuan eragiteko. 	<p>HIZPROko arduradunak. Zuzendaria. UEMA. Hizkuntzetako irakasleak.</p>	<p>Urteko Plana Memoria Hausnarketa erabakiak. Datuen jasoketa. Elkarlana aliatuekin. Taldea martxan. Koordinazio bileretako akta. Elkartrukeen asebetetzea.</p>

B 2	2. Euskal Curriculum garatzea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntz lantalde horizontal eta bertikalen jarraipena egin: <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Ziklo bakoitzeko helburu minimoak eta landu beharrekoak identifikatu . 1.2. Ziklo zein etapa arteko trantsizioak erraztu asmoz aurrez landutakoak zehaztu kasu bakoitzean non bukatu den eta nondik abiatuko garen identifikatuz 2. Konpetentzietan oinarritutako Euskal Curriculumaren garapena eta hedapen maila kontrolatu eta doitu: <ol style="list-style-type: none"> 2.1. HH 1. Zikloko (0-3) hezitzaile taldeak, ikasketa buruaren laguntzaz, hausnarketa pedagogikoaren ondorioak hedatu etapako jardueretara: <ol style="list-style-type: none"> 2.1.1. Bileretako plangintzan kontuan hartu. 2.1.2. Irakaslearen esku hartzea nola islatzen den aztertu transmisio txostenean. 2.1.3. Ebaluazioa: bertan erabiltzen diren eredu eta dokumentuak aztertu eta guztion eskura jarri. 2.1.4. Dokumentazioa: txukun eta modu ordenatu batean antolatu eta irakasle guztien eskura jarri. 2.2. HH 2. Zikloan (3-6), aldaketa pedagogikoaren lanketarekin jarraitu: <ol style="list-style-type: none"> 2.2.1. EHI_K landutako 0-6 Marko Pedagogikoaren baitan ikasleen irteera profileko taularen arabera “zer egin dezakegu?” atalean zehaztutakoak praktikan jarri. 2.2.2. Espazioak eta materialak: <ol style="list-style-type: none"> 2.2.2.1. Ikasturte bukaerako adinkako memoria ezabatu eta memoria ereduari atal bat txertatu. 2.2.2.2. Eskaintza musikala berrikusi eta proposamen bat adostu Jaionerekin. 2.2.2.3. Hiruhileko bakoitzean jarraipen saio bat egin, espazio eta material nahiz irakaslearen esku hartzeari buruz. 2.2.2.4. Ebaluazioa: Mintegian jasotako formazioa praktikan jarri etapan. 2.3. LH: <ol style="list-style-type: none"> 2.3.1. Ikasleen ebaluazio sistemaren berridazketarekin jarraitu (konpetentzien ebaluazioa), arlokako unitate didaktiko ezberdinetan erabiliko diren irizpideak idatzi jaso eta dagozkien kalifikazioak zehaztu. 2.3.2. EHI_K antolatutako Ebaluazio Integralaren ezarpena DBH 4. Mailara zabaldu, irakasleak formazio saioetan parte hartuz. 2.4. LH 4. 5. 6. eta DBH-ko maila guztietan, EKI proiektuaren jarraipenaren kontrola burutu eta honen zerbitzura jarritako azpiegitura informatikoari segida eman (baliabideak eta espazioen/ordutegiaren antolaketa). 2.5. Ebaluazio sistemaz eta prozedurez hartzen ditugun erabakien jarraipena egin eta ebaluazio aldi ezberdinetan, erabakita bezala aplikatu. 2.6. Etapa guztietako Ikasturte Hasierako Familia bileretan, ikasleen ebaluaziorako segitzen den prozedura komunikatu 	AP	Hartutako erabakiak. Formazioko ziurtagiria.
--------	--	--	----	--

<p>B 3</p>	<p>3. Interes-taldeetan euskal sena eta honekiko atxikimendua barneratzea</p>	<p>1. Herriko kultur taldeekin elkar lana bideratu, ikastolak onetsitako kultur ekintzen egitasmoetan parte hartuz. 1.1. Udaleko Batzordeekin: 1.1.1. Euskara eta Euskal Kultura Batzordearekin bileretan parte hartu (udaleko teknikariaren bilera egutegia) 1.1.2. Aukera Berdintasun eta Parekidetasun Batzordearen proposamen bideragarriak adostu eta ikastolatik sustatu Hezkidetza planaren bidez. Inguru-giro Batzordetik datozen proposamen interesgarriak ikastolatik sustatu B4 helburu orokorarekin koherentzian (ingurumena eta jasangarritasuna)</p>	<p>Hitz- Ahoko ordezkariak ZT AK Udaleko Batzordeetako teknikariak</p>	<p>Parte hartzea bermatu.</p>
----------------	---	--	--	-----------------------------------

D: KOMUNIKAZIOA				
	HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
D 1	1. Komunikazio eraginkorra sustatzea.	<ol style="list-style-type: none"> Ohiko komunikazio bideak erabiltzeaz gain, sare sozialen bidez zabaltzen ditugun komunikazioen edukiaren berrazterketa, arduren banaketa eta kontrola. Horretarako, edukien zerrenda, elikatuko dituztenen zerrenda eta denboralizazioa egingo da. IKT taldea finkatu eta ikasturte bakoitzeko plangintza irailean osatu. 	IKT +	Sare sozialetan presentzia koherentea. IKT plangintza.
D 2	2. Gurasoen/ Familien parte hartzea sendotzea eta komunikazioa hobetzea	<ol style="list-style-type: none"> Herritarren jakintza eta ezagutzak baliatu geletako hezkuntza jardueretan, haien parte hartze zuzenaren bidez. <ol style="list-style-type: none"> Familien parte hartzea eta komunitatearen sendotzea bermatu. Ikasturte Hasierako Bileretan parte hartzearen eta inplikazioaren gogorazpena eta banan-banako, zuzeneko eskaera/eskaintza egin gurasoei. Batzar Orokorra indartzeko ahalegina egin parte-hartzea handituz. <ol style="list-style-type: none"> Batzararen antolaketa eta funtzionamendua AKrekin adostu. Karguak berritzerakoan, hautaketa prozedurari jarraitu. 	AK ZT AP Lantaldea (HH&LH& DBH guraso boluntarioak) Administraria	Parte-hartzea bermatuta.

<p>D 3</p>	<p>3. Komunikazioa lantzea Kooperatibako kideen artean (interes taldeak)</p>	<p>1. Gabeziak identifikatu eta Ekintza Plana bideratu: 1.1. Matrikulazio kanpaina sendotzen jarraitu: 1.1.1. Euskarri berri guztiak erabili: triptikoa, kartelak eta bideoa (19ko kanpainan sortutakoa) 1.1.2. Usurbilgo auzo eta inguruko herrietara zabaldu. 1.2. Guraso Kooperatibako Estatutuen jarraipena egin: 1.2.1. Txostenaren eskuragarritasuna eta erabilera 1.2.2. Sortzen diren komunikazio beharrei erantzun, garaian garaiko erabakiak, AK-n hartuz. 1.2.3. Ikastolak kontratatutako letratuaren aholkularitza baliatu. 1.3. Plan Estrategikoaren eta kudeaketaren hobekuntza-estrategien transmisioa: 1.3.1.1. Ikastolen Elkarteko ZUMIN mintegietan Nerearen parte hartzea 1.3.1.2. Kudeaketa Aurreratuko eredu baliatu informazioaren transmisiorako (liderren profila eta jardunbidea) 1.3.2. Erabakiak hartzea: erabakiguneak, erabakigune bakoitzeko ahalmenak, erabakien ondorio-kudeaketa. 2. Aldaketa eta Berrikuntza: kudeaketa estrategikoa.</p>	<p>AK Administraria KT/ AP/ ZT</p>	<p>Informazioa iritsi dela ziurtatu (galdeketa bidez). Parte-hartzea. Erabakiak hartu</p>
----------------	--	--	--	---

E: AZPIEGITURAK				
	IKASTURTEKO HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
E 1	1. Espazioen eraldaketa diseinua egokitzea berrikuntza pedagogikoko beharrei.	1. Eraikin bakoitzeko beharren plangintza ikasturtero zehaztu: esku-hartzeak definitu, lehentasunak ezarri eta esku-hartzeetarako kronograma zehaztu. 1.1. Eraikin bakoitzeko beharren zerrenda egin lehentasunak ezarrita. 1.2. Udalarekin egin beharrekoa adostu (exekuzio proiektua onartu beharko lukete). 1.3. Udalari, lankidetzak eskatu (bere zerbitzuak erabiltzeko aukera, finantziarioa).	ZT AK	Esku-hartzea
E 2	2. Interes taldeen beharrak asetzea kalitatezko kudeaketa bermatuaz.	1.Garraioa: 1.1. Ikasturtean zehar gai honekiko har daitezkeen erabakiak kudeatu (enpresa, erabiltzaile). 1.2. Jangela: 1.2.1.Jangela catering jarraipena eta kontrola burutu (AIBAK) 1.2.2.Begiraleen formazioa bideratu. 1.2.2.1. AIBAK-EKO EKINFOOD sailaren formazio eskaintza baliatu. 1.2.2.2 Udaleko Parekidetasun eta Hezkidetzak sailak herriko ikastetxeekin batera antolatutako formazioa baliatu. 1.2.3. Ikastolako jangelako menuetan NAOS adierazle eta gomendioak betetzeko menuetan proposatutako moldaketak egitea. 1.2.4. Osasun sailak AAKPK sistemaren auditoretza txostenean adierazitako zuzenketak egitea. 1.3. Goizeko Zaintza: langileen beharren aurreikuspenak eta TTAKUN Elkartearekin harremana kontratazioetarako eta intzidentzien jarraipenerako.	Administrazioa ZT AK	Hausnarketak eta erabakiak. Formazioa. Kontrol-orriak.

<p>E 3</p>	<p>3. Inguruaren beharrak asetzeko aurrea hartzea</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Asebetetze inkestak (bi urtean behin), eta ondorioak eta erabakiak komunikatzeko prozesuak errebisatu: <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Familien asebetetze inkestak: <ol style="list-style-type: none"> 1.1.1. Inkesta errebisatu eta egokitu. 1.1.2. Asebetetze inkestetatik eta beste informazio iturrietatik jasotako emaitzen/datuen komunikazioa burutu. 1.2. Komunikazio plana errebisatu eta adostu. 2. Familiak Udarregi Guraso Kooperatibaren bazkide izateko aukera aldi oro eman (bereziki, matrikulazio garaian): <ol style="list-style-type: none"> 2.1. Guraso Kooperatibaren estatutuak Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 legera egokitzea. 2.2. Artezkaritza Kontseiluak Estatutuak berritzeko proposamena 2021eko batzarrean aurkeztua onartua izan dadin. 2.3. Gotzon Gondrarekin (Ikastolako letratua) harremanetan jarraitu lege aholkularitzarako. 	<p>ZT AK</p>	<p>Asebetetze inkestak. Emaitzak. Erabakiak. Batzarreko txostena. Bazkide izateko gonbitea.</p>
----------------	---	---	------------------	---

F: ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA				
	HELBURUAK	JARDUERAK	ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
F 1	1. Giza baliabideen beharren plangintza egitea eta gauzatzea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Urteroko pertsonal beharrak aztertu matrikulazio datuetan oinarrituz. <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Zuzendaritza taldean etapa bakoitzeko organigramak landu eta dagozkien txantiloietan jaso(otsail amaieratik maiatza arte). 2. Epe ertain eta luzerako pertsonal beharren azterketa egin, ikastolak zehaztutako profila eta aldagai guztiak kontutan izanik. <ol style="list-style-type: none"> 2.1. Pertsonal beharren proiektzioa (eboluzio txostena) egin. 3. Langilegoaren kudeaketarako protokoloa prestatu irizpideetan oinarrituz; protokoloaren osagarri izango den balorazio orria sortu. 	ZT AK	Organigrama. Balorazio orria. Irizpide orria. Protokoloa.
F 2	2. Autonomiaz Ikastola kudeatzea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Adierazle kritikoak kudeatu eta emaitzak hobetu 2. Haur Eskolako bideragarritasun ekonomikoa eta oreka finantzarioa bermatu: <ol style="list-style-type: none"> 2.1. Aurreikuspenen jarraipena egin eta kontrolatu; langileak, baliabideak, ordutegiak eta erabiltzaileak. 2.2. Ikastolak bere proposamena landu. 2.3. Udalaren kontu-hartzailearekin harremanetan egon. 3. Itunen eskaera, jarraipena, kontrola egin. 	AK Gerentea Zuzendaria Administrari- burua	Bideragarritasun ekonomikoa. Itunak.
F 3	3. Etengabeko Hobekuntza ereduaren oinarritutako kudeaketa bermatzea	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikastolaren barne- antolaketan eta funtzionamenduan Kudeaketa Aurreratuaren Sistemaren hedapena aztertu: <ol style="list-style-type: none"> 1.1. Sarean ezarritako EKKS plataformaren erabilpenean guztiok trebatzen lagundu: <ol style="list-style-type: none"> 1.1.1. Ikasurtearen hasieran prozesuen jarraipenerako taula egokitu. 1.1.2. Langile bakoitzari honen kokapena sarean gogorarazi. 1.2. Ikasurtea amaitu baino lehen AKn erabaki sistemaren jarraipenaz (2021-2022 ikasurtean jarraituko den ala ez). 1.3. Hezkuntza formala eta ez formala arteko proiektuen integrazioa. 	ZT Administrazioa	Kudeaketa aurreratuaren (prozesuen) taula.

<p>F 4</p>	<p>4.1 Ikastolako ekonomiaren kudeaketa orekatua bermatzea</p>	<p>1. Aurrekontu orekatuak prestatu eta diru laguntzak kudeatu: 1.1. Inbertsio Planak sortu eta ebaluatu. 1.2. Langileriaren lan hitzarmenaren jarraipena egin, garaian garaiko akordioen kudeaketa bermatuz. 1.3. Diru-laguntzen kudeaketan, kontuan hartu erakundeen murrizketak eta ezabatzeak eta horren baitan beharrezko aurreikuspen ekonomikoak egin. 1.4. Ikastolako beka sistema propioaren kudeaketa: 1.4.1. Indarrean dugun sistemaren jarraipena egin: 1.4.1.1. Administrarien taldearen iradokizunak aztertu eta hala badagokio onartu 1.4.1.2. Artezkaritzak onartutako iradokizunak indarrean jarri. 1.4.1.3. Ikasturtearen amaieran balorazioa egin.</p>	<p>Administrariak Zaintza Batzordeko Kideak. AK. Zuzendaria</p>	<p>Aurrekontuak. Inbertsio plana. Langile hitzarmenak. Dirulaguntzak. Beka sistema. Batzarreko txostena.</p>
----------------	--	---	---	--

Urteko Kudeaketa Planaren ulermena erraztu asmoz, hona, dokumentuan zehar agertzen diren akronimoen zerrenda:



Izan zaitetz kritikoa
begiratu haratago
lagunen laguna izan
ta ideia berrien mago
zeure buruan sinetsi
zailtasun oro igaro
ta inor ez kaltetzeko
bitan pentsatu lehenago
denok gara ezberdinak
baina inor ez da arraro
naturarekin bat egin
bizirauteko luzaro
mutil, neska zein etorkin
denentzat lekua dago
norbera izan gaitezen
ta ez inor baino gehiago



19/01/22_KLAUSTROA